



BIZKAIKO ELKARRERAGINGARRITASUN-PLATAFORMA

Dokumentua – Sarrera/Irteera-ko datuak

Zerbitzua: Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren kontsulta



Lanbidek eskaintzen du Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren kontsultarako web-zerbitzua; haren bidez, pertsona jakin bati buruzko informazioa eskuratu daiteke eta jakin daiteke zer zenbateko eta prestazio jasotzen dituen, pertsona horren nortasun-agirien bidez (NANa, AIZa edo pasaporte). Horrez gainera, aukera ematen du titularren izen-abizenen bidezko kontsulta egiteko, bai eta urte jakin batean jasotako zenbatekoak kontsultatzeko ere.

Zerbitzua Lanbideren DBE zerbitzuarekin konektatuko da; izan ere, zerbitzu horrek dauka datuak finkatzeko eskumena, Eusko Jaurlaritzaren eremuan.

Zerbitzuak eskatutako datuak: hauek dira kontsultatu nahi den pertsonari buruz gutxienez ere eman behar diren datuak:

- **Dokumentazio mota:** Kontsultatu nahi den titularren dokumentu-mota: (NANa/AIZa/Pasaportea). Aukerakoa.
- **Dokumentazioa:** Titularren dokumentuaren zk.
- **Izena + 1. abizena + 2. abizena.**
Dokumentuaren mota eta zenbakia emanez gero, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren kontsultarako zerbitzuak ez du kontuan hartuko izen osoari eta/edo izen-abizenei dagozkien gainerako datuak heltzen diren. Kontsultatutako dokumentu-zenbakia Lanbideren DBE sisteman badago, zerbitzuak jaso den dokumentu-zenbakirako sisteman dituen izen-abizenak itzuliko ditu.

Zerbitzuak informazio hau itzuliko du:

- Titularren izen-abizenak.
- Titularren identifikatzailea (NANa/AIZa/Pasaportea).
- Titularren jaiotze-eguna.
- Administrazio-espeditentea eta egoera (egoera).
- Izan daitezkeen egoerak:
 - Emanda
 - Ukatuta
 - Etenda
 - Iraungita
 - Artxibatuta
- Prestazio mota. Izan litezkeen balioak:
 - DBEa
 - DBEa/EPOa
- Titularra edo onuraduna. Izan litezkeen balioak:
 - Titularra.
 - Bizikidetzta-unitateko kidea
- Titularra pentsioduna den adierazlea.
- DBEa eta/edo guraso bakarreko unitatearen sorospena eta/edo EPOa dela-eta emandako zenbatekoa.
- Laneko sarrerei dagokien zenbatekoa.



- DBEa eta/edo guraso bakarreko unitatearen sorospena eta/edo EPOa dela-eta eginiko azken ordainketaren zenbatekoa eta data.
- Urtean DBEa eta/edo guraso bakarreko unitatearen sorospena eta/edo EPOa dela-eta metatutako zenbatekoa, "kontsulta-egunaren aurreko hileraren arte".
- Prestazioak zer egunetatik sortzen dituen ondorioak.
- Espedientearen azken egoerak zer egunetatik sortzen dituen ondorioak.
- Bizikidetzaren unitatearen edo etxebizitzako kideen kopurua.
- Etxebizitzako prestazioen kopurua.
- Etenda/iraungita dauden espedienteen arrazoiak/zergatiak.



BERTSIO KONTROLA

V.00	Bertsio Originala	2017/10/25
------	-------------------	------------